

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Guztira 3.464 gaztek egingo dituzte kanpaldiak Nafarroako parajetan, gehienak Erronkari ibarrean

Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren baimena behar dute, 24 orduko zaindaria duena edozein egoerari aurre egiteko

Lunes, 22 de julio de 2013

Guztira [3.464 gaztek](#) kanpaldiak egingo dituzte uda honetan Nafarroako hainbat toki eta parajetan, gehienak Erronkari ibar aldean; bertan, guztira 35 taldek kanpaldia egitea aurreikusten da 2,311 txangozaleren parte-hartzearekin. Hainbat autonomia erkidegoetakoak dira: EAE, Katalunia, Madril, Valentzia edo Errioxa. Gainerako taldeek (52 arte) hautatutako beste gune batzuk honako hauek dira: Ultzama, Olo, Arakil, Baztango ibarrak, eta Zangoza nahiz Lizarra ingurua.



Belagua.

Talde guztiek Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren Gazteria zuzendaritzaordearen [baimena](#) eskatu behar dute, zenbait baldintza egiaztatuz, adibidez: udalaren baimena, edo istripu nahiz gizarte-erantzukizuneko aseguru-polizak izenpetzea, bai eta ezarri dituzten autobabeserako plan bat ere osasun-neurriekin (uraren, zaborren tratamendua, galkorrak diren elikagaien biltegiatzea, komunak) eta segurtasun-neurriekin (medikua, botikina, ebakuazio-plana larrialdi baten aurrean).

Eskaeran parte-hartzaileen zerrenda jaso behar da, bai eta arduradunen datuak ere Nafarroako Gobernuak uneoro haiekin harremana izateko. Izan ere, Gazteria zuzendaritzaordeko teknikariak zaintzan dauden eguneko 24 ordutan, astelehenetik igandera kanpaldietan edozein gertakariri arreta emateko. Halaber, Nafarroako Larrialdi Agentziak datu berak ditu taldeetako arduradunei abisua emateko beharra izanez gero. Arrazoi hori dela eta, ohikoa da baimenik behar ez duten taldeek ere datu-mota hori ematea.